



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 4a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da argitara dezan hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatu eta bultzatze aldera irakasleen prestakuntzari zuzenduta dagoen osasun gaiei buruzko materiala. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernua-rekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea ditzan Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik etorritako pertsonak hautesle eta hautagai izan ahal izateko udal hauteskundeetan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseilua premiatzen da azterketa eta txostena egin dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza lizentziadun titulu ofiziala lortze-ra bideratutako ikasketak ezartzearen egokitasunari buruz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, NUPekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen diren tituluen azterketa sakona egin dezan, ikasketa berrien ezarpena hobetze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zergatik bideratzen diren 600.000 euro Nafarroako Aldizkari Ofizialeko itzulpen lanak kanpoan kontratatzeko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkaritza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruzkoa. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainekoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (20. or.).
- Galdera, haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (21. or.).
- Galdera, ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (22. or.).
- Galdera, Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla-eta aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2008ko martxoaren 17an hartutako erabakiaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko apirilaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duenak, 34. artikuluan ezartzen du zein diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erabiliko dituen formulak bere langileen barne-igoerarako, eta d) letran aipatzen du Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko duela Parlamentura lanbide karreraren edo beste elementu batzuetan oinarritutako lansari-pizgarriak sortzeko.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legearen bidez, Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko osasun arloko langile fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri da Nafarroako Foru Komunitatean. Lanbide karreraren sistema hori abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu da.

Estatuan, berriz, osasun arloko lanbideen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak ezarri du osasun arloko profesionalen –unibertsitateko lizentziadunak nahiz diplomadunak– lanbide garapenerako sistema, hau da, osasun arloko profesional batek gai hauetan lortutako garapen-mailaren aitortza publiko, espres eta banakakoa: ezagupenak, laguntza, irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetako esperientzia, bai eta zerbitzuak ematen dituzten erakundearen laguntza eta ikerketa helburuak betetzeari dagokiona ere.

Azaroaren 21eko 44/2003 Legeak bi aurreikuspen ditu lanbide garapenerako sistemaren ezarpenaren inguruan. Bata da osasun administrazioek zehaztuko dituztela lanbide garapenerako sistema aplikatzeko epeak eta aldiak, irizpide orokorra izanik ezarpeneko prozedurak legeak indarra hartu eta lau urteko epean abian egon beharko dutela. Bestea da lanbide garapenerako mailak aitortzeak lansarien egituraren eta zenbatekoan ekar ditzakeen ondorioak dagokien sindikatuekin negoziatuko direla kasu bakoitzean, aplikatzekoak diren arautan xedatutakoaren arabera.

Unibertsitate diplomadunak diren osasun arloko langileentzat lanbide karrera baten eredia ezartzea helburu orokor baten barruko neurria da: osasun laguntzaren hobekuntza lortzea, oinarrizko zenbait alderdiz baliatuz eta horiek garatuz, hala nola, etengabeko prestakuntza kalitate teknikoa eta laguntzarena hobetzen bakoitzak egindako ahaleginaren adierazgarri izatea, bideak irekitzea profesionalak osasun zerbitzuen zuzendaritzan eta kudeaketan partaidetza handiagoa eta eraginkorragoa izan dezaten, motibazio eta pizgarriak sortzeko mekanismoak jartzea, aukera eman dezaten ahaleginak modu egokian bideratu eta laguntzari dagokionez lortutako emaitzen aitortza egiteko.

Alderdi horiek garatzeko bideak dira profesionalak beraiei protagonismoa ematea lanbide karreraren eredia aplikatzen eta geroko garapena gauzatzen, eta sistema arautuak definitzea lanbide jardueraren ebaluatu, aitortu eta saritzeko.

Osasun arloko langile diplomadunentzat lanbide karreraren sistema bat ezartzean aintzat hartu behar dira nahitaez, lansarietako ondorioei dagokienez, egun lansarien sistema osatzen duten kontzeptuak, zeinak ez baitira bat heldu gainerako osasun administrazioetan osasun arloko langile diplomadunentzat finkatutakoekin, Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publikoaren arloan dituen eskumen historikoak direla eta. Ildo horretan, aintzat hartu behar da, nagusiki, graduari dagokion lansaria, Foru Komunitatean indarra duen araudian funtzionarioen karrera administratiboarekin lotutako kontzeptua baita, gaur egun sistema aldi baterako etenda badago ere.

Foru araudiak berezkoak dituen alderdiez gain, gainerako osasun administrazioetan osasun arloko langile diplomadunen lansari-maila orokorrari begiratuta, Nafarroako Foru Komunitatean langile horizontzako lanbide karreraren sistema bat ezartzeak, beste administrazioetan ezarritakoaren antzekoa, bere lansari-sistema gaur egun osatzen duten kontzeptuak aldatu eta egokitu beharra eraginen du. Hori gertatu bitartean, sistemaren aplikazio iragankorra ezarri beharra dago, Foru Komunitateko

Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileekin ez ezik gainerako osasun administrazioetako osasun arloko diplomadunak diren langileekin ere dagoen oreka hautsiko ez duten zenbatekoekin.

ARTIKULUAK

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile finko diplomadunei aplikatu beharreko lanbide karreraren sistema ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru Lege honen bidez arauturiko lanbide karreraren sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostu bat jabetzan duten langileei aplikatuko zaie, betiere zerbitzu horri atxikitako langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aipatzen den osasun arloko diplomadunen estamentuan sartutako espezialitateetarako izendatutako badira.

2. Foru lege hau ez zaie aplikatuko kupo eta eskualdeko langileei, ez eta udaletako osasun funtzionarioei ere, Foru Komunitateko Administrazioa toki osasunaren zerbitzuko funtzionario gisa eskualdatuta ez badaude.

3. artikulua. Definizioa.

Lanbide karrera langileen motibazioarako eta osasun zerbitzuen hobekuntzarako lanabes bat da, eta profesionalak banaka aurrera egiteko duten eskubidearen adierazgarri, lanbidean izandako garapena aitortzen dielako, ezagupenei, laguntza, irakaskuntza eta ikerketa eginkizunetako esperientziari, eta zerbitzuak ematen dituzten erakundearen helburuak betetzeari dagokienez.

4. artikulua. Lanbide karreraren mailak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruko langileen lanbide karreraren sistema lau ordainsari-mailatan ezartzen da.

2. Lanbide karrerako mailetan gora egiteko, profesionalak frogatu beharko ditu iraunaldiko urteei, lanbide jarduerari eta laguntza arloko jarduerari eta hobekuntza eta gaurkotze profesionalakoei dagozkien merezimenduak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean ezarritako moduan.

3. Mailaz igotzeko bete beharrekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hura erregela-

menduz garatzeko arauetan ezarritakoak izanen dira, foru lege honetan eta, halakorik bada, erregelamenduzko garapenerako arauetan ezarritako berezitasunekin.

5. artikulua. Lanbide karreraren ordainsariak.

1. Foru lege honetan arautzen den lanbide karrera berariazko osagarri bat emanez ordainduko da. Osagarri hori ordainsari osagarritzat joko da, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6. artikulua ondoietarako. Foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubidea arautzen du.

2. Lanbide karrerako osagarria hilean hileko hamalau saritan ordainduko da. Horietako hamabi ohikoak izanen dira eta beste biak, ohiz kanpokoak.

6. artikulua. Ebaluazio sistema.

1. Osasun arloko profesional diplomadun bakoitzaren laguntza jardueraren ebaluazioa, helburu eta emaitzen gainekoa, urtero eginen da, aurreko ekitaldiari dagokionez.

2. Zuzendaritza eta kudeaketa, prestakuntza eta garapen teknikoko jardueren ebaluazioa, berriz, interesdunak eskatuta eginen da eta betiere maila aldatzeko gainerako baldintzak betetzen baditu.

3. Ebaluazio prozedura Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hura erregelamenduz garatzeko arauetan ezarritakoa izanen da, foru lege honetan eta, halakorik bada, erregelamenduzko garapenerako arauetan ezarritako berezitasunekin.

7. artikulua. Ebaluazio batzordeak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko dira beharrezkoak diren ebaluazio batzordeak, langileak atxikitzeke esparru funtzionalen arabera.

2. Ebaluazio Batzordeak paritarioak izanen dira eta zortzi kidez osatuak; kideetako lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izendatuko ditu eta beste lauak esparru bakoitzeko osasun arloko diplomadunen artean izendatuko dira, erregelamenduz ezarritako arauekin bat.

3. Foru lege honetan eta hura erregelamenduz garatzeko arauetan aurreikusi gabe dagoen guztian, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea erregelamenduz garatzeko araudian ezarritakoak arautuko ditu ebaluazio batzordeak.

8. artikulua. Kreditazioa.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, kasuan kasuko ebaluazio batzordeak eskaturik, osasun arloko diplomadun bakoitzak lanbide karreraren lortutako mailaren kreditazio formalak egiten du.

9. artikulua. Finantzabidea.

1. 3.100.000 euroko kreditu gehikuntza eman da, Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorretako "Erizaintzako lanbide karrera" izeneko 540000-52000-1239-311102 kontusailari egotziko zaiona.

2. Kreditu gehikuntza hori aurrekontu indarduneko "Aurreko ekitaldietako superabitaren erabile-ra" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailan izandako dirusarrera gehigarrien kargura finantzatuko da.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 44. artikuluko 3. idatz-zatiarekin bat, foru lege honetan onetsitako osagarria aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu mugimenduak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Osasun arloko diplomadunak diren langileen lanbide karrerako osagarriak zenbateko hauek izanen ditu urtean:

- I. maila: 1.800 euro.
- II. maila: 3.600 euro.
- III. maila: 5.400 euro.
- IV. maila: 7.200 euro.

2. Aurreko atalean aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lansarietarako ezartzen diren igoera portzentajearen oinarrituta.

Bigarrena. Aldi baterako emandako zerbitzuak.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera bere aplikazio esparruko zentro eta zerbitzuetan aldi baterako kontratuaren bidez emandako zerbitzuak foru lege hau erregelamenduz garatzeko araudietan finkatzen diren arauak jarraikiz ebaluatuko dira edo, halakorik ezean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legea erregelamenduz garatzeko araudian ezarritako arauak jarraikiz.

Hirugarrena. Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio esparruko langileei aplikatuko zaie Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan zuzendaritza, zuzendariordetza, burutza postuetan edo zuzendaritza arloko beste edozein ardura kargutan ari diren bitartean. Kasu horretan, eta foru lege honek erregulamenduzko garapenik ez duen guztian, aplikatzekoak izanen dira apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen erregulamenduzko garapenerako araudian ezarritako ebaluazio arauak.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio esparruko langileei aplikatuko zaie langileen ordezkari organoetako kide diren bitartean, legez ezarritako ordu kredituaz lanaldi osoan baliatzen direnean. Kasu horretan, mailaz igotzeko, iraunaldiak betetzeaz gain, prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoko jardueri buruzko baremoko ataleko betebeharrak baizik ez zaizkio eskatu eta ebaluatuko, foru lege honen erregulamenduzko garapenik ez duen guztian, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen erregulamenduzko garapenerako araudian ezarritako arauekin bat.

Laugarrena. Langile fakultatiboen lanbide karrerako mailak parekatzea.

Foru lege honek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboen lanbide karreraren sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen aurreikuspenetara bidaltzen duenean, lanbide karreraren mailen baldintzei eta ezaugarriei dagokienez, foru lege honetan araututako lanbide karrerako I. maila fakultatiboen lanbide karrerako II. mailaren parekoa dela ulertuko da, eta hortik aurrerakoak modu berean.

Bosgarrena. Lanbide karrerako maila aitortua Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei aplikatzea.

Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei lanbide karrerako osagarria jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan zerbitzuak ematen dituzten bitartean, foru lege honetan ezarritako zenbatekoan. Era berean, mailaz igotzeko baldintzak foru lege honetan ezarritakoak izanen dira.

Seigarrena. Foru lege honen aplikazioa Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun arloko langile diplomadunei.

Foru lege honetan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunentzat ezarritako lanbide karreraren sistema aplikatzekoa izanen zaie, halaber, Osasun Depar-

tamentuko eta hari atxikitako erakunde autonomoetako osasun arloko langile diplomadunei.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Osasun arloko langile diplomadunei lanbide karrerako hasierako maila ematea.

1. Osasun arloko langile finko diplomadunei dagokien hasierako maila emateko, Europar Batasuneko kide diren estatuetako sistema publikoetan jabetzako lanpostuan emandako zerbitzu urteak kontuan hartuko dira, izendapena foru lege honen 2. artikuluan aipatuetakoa baldin bada. Eskala honi jarraituko zaio:

a) I. maila emanen zaio emandako zerbitzuak 5 urtekoak badira.

b) II. maila emanen zaio emandako zerbitzuak 14 urtekoak badira.

c) III. maila emanen zaio emandako zerbitzuak 22 urtekoak badira.

d) IV. maila emanen zaio emandako zerbitzuak 29 urtekoak badira.

2. Jabetzako lanpostu batean zerbitzuan emandako urteak hasierako maila emateko behar direnak baino gehiago izanez gero, kontuan hartuko dira etorkizunean, foru lege honetan ezarritako prozedurari jarraikiz mailaz igotzeko.

Bigarrena. Kupo eta eskualdeko langileak sartzeari.

Oinarrizko osasun laguntzako taldeetako edo laguntza espezializatuko zerbitzu hierarkizatueta lanpostuak lortzen dituzten kupo eta eskualdeko langileei, horietan lanaldi orokorra egiten badute, lanbide karrerako dagokien maila emanen zaie, osasun sistema publikoetan jabetzan emandako zerbitzu urteak kontuan hartuta, baldin eta foru lege honen 2. artikuluan adierazitako izendapeneta batekin eman badira zerbitzuok, lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritako eskalaren arabera.

Hirugarrena. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoen izaera iragankorra ezartzea.

Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak, foru lege honen lehen xedapen gehigarrian osasun arloko langile diplomadunentzat ezarri direnak, izaera iragankorrekarekin aplikatuko dira, egun indarra duten lansari kontzeptuen zenbatekoak, foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistemara egokitzeko, ondorio guztiekin aldatu bitartean.

Laugarrena. Foru lege honetan osasun arloko langile diplomadunentzat arautu den lanbide karrerako sistema pixkanaka ezartzea.

Osasun arloko langile finko diplomadunentzat foru lege honetan ezarri den lanbide karreraren sistema pixkanaka ezartzen joanen da hiru urtean, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hori dela eta, foru lege honen lehendabiziko xedapen gehigarrian lanbide karrerako osagarrirako finkatutako zenbatekoen portzentaje hauek eginen ditu osagarriak urtez urte:

- 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 40.
- 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 70.
- 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, 100eko 100.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bigarrena. Foru lege hau garatu eta betearazteko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena**ZIOEN AZALPENA**

Gizarte zerbitzuak jarduketa eta baliabide multzo bat dira, helburu dutenak bazterkeriari aurrea hartzea eta, zailtasun ekonomikoak, autonomia pertsonal eza, urritasuna edo gizarte-bazterkeria direla medio gizarte-babesa eta laguntza behar duten pertsona eta familien gizarteratzea sustatzea.

Gizarte zerbitzuak –hala nola beste zerbitzu batzuk, esaterako osasuna, hezkuntza, etxebizitza, enplegua eta pentsioak– gizarte-babesaren sistemaren oinarritzko zutabeetako bat dira, gaur egun errotuta dagoen ikuspuntuaren arabera.

Gure gizartean gertatu diren aldaketa sozialen kariaz, kalitatezko laguntza eskatzen duten sektore berriak azaleratzen ari dira.

Nafarroan garrantzi gero eta handiagoa du migrazioak. Garrantzitsua da kopuruagatik, garrantzitsua berria izateagatik eta garrantzitsua, azkenik, gizartean dituen ondorio eta inplikazioengatik. Halatan, beharrezkoa da administrazio publikoak konpromiso espresa har dezan sektore hori artatu eta laguntzeko.

Etorkin asko erregularizaturik bizi dira, baina milaka etorkin bizi dira gure artean oraindik erregularizatu gabe, eta horrek ondorioak ditu noski herritar diren aldetik dagozkien eskubideei begira.

Nafarroak gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna bermatu behar du, eta hortaz, zuhurtzarakotasuna gainditzera jo behar dugu, gure artean bizi diren sektore sozial guztien beharrezkoak planifikatuz eta horien guztien bazterkeria eta premia egoerak konpontzera bideratutako esku-hartzeak areagotuz.

Gizarte zerbitzuak gizarte-babesaren sistemaren oinarritzko zutabeetako bat dira, gaur egun errotuta dagoen ikuspuntuaren arabera. Hori dela eta, uste dugu gizarte zerbitzuak beste zerbitzuen pare jarri behar direla –osasun edo hezkuntza sistemen pare, esaterako– irisgarritasunari dagokionez.

Asmoa da, beraz, gizarte zerbitzuen unibertsaltasunaren printzipioa, legearen 5.a artikulua jasotzen duena, gauzatzea, baztertuta dagoen sektore bati, lege-egoera berezia izateagatik laguntza orokor eta unibertsala merezi duen sek-

tore bati, alegia, laguntza zuzena emateko ekin-tzak sustatuz.

Gure ustez, bada, pertsonak, pertsona eta Nafarroako gizartearen parte izate hutsagatik, eskubideen subjektu eta titularrak dira. Horrenbeste, herritarrentzat oro har daudenak alde batera utzita, ez da salbuespenik egon behar gizarte prestazioak jasotzean. Hain zuzen ere, helburua da babesa ematea gizartearen ikuspuntutik ahula den sektore bati, zeinaren bizi baldintzetan marjinalitate-egoera gertatzeko osagai objektibo guztiak ematen diren.

Nabarmendu beharra dago orobat gizarte zerbitzuen sistema publikoak oreka-faktore izan behar duela. Horrek agerian uzten du nahitaezkoa dela sektore pribatuaz gain –itundua, kasu bada– sektore publikoa, osasunarekin edo hezkuntzarekin gertatzen den bezala egiazko sistema baten ezau-garriak dituen.

LEGE PROPOSAMENAREN TESTUA

Artikulu bakarra.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko 4. artikulua aldatu da. Horra testua:

“4. artikulua. Gizarte zerbitzuen hartzaileak.

1. Foru Komunitateko lurraldearen barrenean gizarte zerbitzuen sistema Nafarroako edozein udaletan bizi diren herritar guztiengana iritsiko da, egiazko berdintasun baldintzetan iritsi ere, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere”.

2. Nafarroan bizi ez diren herritarrek, bai eta pasadizokoek ere, gizarte zerbitzuen sistema baliatze eskubidea izanen dute, baldin eta Nafarroan larrialdi pertsonaleko edo/eta peitutasun egoeran badaude”.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

33.1 artikulua testu berria aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Gobernuo lehendakariak esku-bidea du bereizgarri gisa Nafarroako bandera eta

ezkutua erabiltzeko eta bere kargua dela-eta dagozkion ohoreak jasotzeko”.

Zioak: Proposamenaren testua hobetzen du, honakoengatik: a) kendu egiten du “txit garaia” gizalegezko tratamendua nahitaez erabili beharra eta ez du horren ordezkorik ezartzen, eta, horrela, tratamendu hori kendu zaien beste batzuekin (nazioko Gobernuo lehendakariari kendu egin zaio, esaterako) bidegabe jokatzeko posibilitatea kentzen du, eta, aldi berean, bestelako protokolo-tratamenduak dituzten foru erkidegoko beste agintari batzuekin (foru parlamentariekin beraiekin) bidegabeko alderik egoteko aukerarik ere ez du ematen; b) tratamenduak dira kargu publikoetan ari direnenak, ez karguenak berenak (ez da esaten “Gobernuo Lehendakaritza txit garaia”, baizik eta “Gobernuo lehendakari txit garaia”); eta c) ez dio heltzen “genero”ko aldaketa partzialak egiteari, proposamena, izan ere, mugatzen baita aldatzea proposatzen dituen artikuluetara, ahaztuz foru legearen gainerako artikulua (eta eztabaidagai den lege-aldaketa bera ere bai), eta aldaketok, gainera, gramatikalki okerrak baitira edo, gutxienez ere, zalantzarikak hizkuntza ikuspegitik.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

37.1 artikulua testu berria aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Gobernuko lehendakariak, kargua utzitakoan, dagozkien ohoreak izanen dituzte eta, Foru Komunitateko ekitaldi ofizialetan, erregelamendu bidez protokoloan ezartzen zaien tokia izanen dute.”

Zioak: Aurreko artikuluan bezala, proposamenaren testua hobetzen du, honakoengatik: a) kendu egiten du “txit garaia” gizalegezko tratamendua nahitaez erabili beharra eta ez du horren ordezkorik ezartzen, eta bete egiten du, horrela, aldaketaren azken helburua; eta b) bidea irekita uzten du, behar izanez gero, beste ohore edo gizalegezko tratamendu batzuk ezartzeko, eta ekiditeko, era horretan, beste agintari batzuekiko jokaera bidegabeak.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

43. artikulua testu berria aldatzeko zuzenketa:

“Nafarroako Gobernuko kontseilariak beren kargua dela-eta dagozkien ohoreak jasotzeko eskubidea dute.”

Zioak: 33.1. artikuluko berak: Legearen testua hobetzen du, honakoengatik: a) kendu egiten du “txit garaia” gizalegezko tratamendua nahitaez erabili beharra eta ez du horren ordezkorik ezartzen, eta horrela, tratamendu hori kendu zaien beste batzuekin (ministrotei kendu egin zaie, esaterako) bidegabe jokatzeko posibilitatea kentzen du eta, aldi berean, bestelako protokolo-tratamendu batzuk dituzten foru erkidegoko beste agintari batzuekin (foru parlamentariekin beraiekin) bidegabeko alderik egoteko aukerarik ere ez du ematen; b) tratamenduak dira kargu publikoetan ari direnenak, ez karguenak berenak (ez da esaten “halako Departamentu txit garaia”, baizik eta “halako kontseilari txit garaia”); eta c) ez dio heltzen “genero”ko aldaketa partzialak egiteari, proposamena, izan ere, mugatzen baita aldatzea proposatzen dituen artikuluetara, ahaztuz foru legearen

gainerako artikulua (eta eztabaidagai den legealdaketa bera ere bai), eta aldaketok, gainera, gramatikalki okerrak baitira edo, gutxienez ere, zalan-tzagarriak hizkuntza ikuspegitik.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

47.1 artikulua testu berria aldatzeko zuzenketa:

“1. Nafarroako Gobernuko kontseilariak, kargua utzitakoan, dagozkien ohoreak izanen dituzte eta, Foru Komunitateko ekitaldi ofizialetan, erregelamendu bidez protokoloan ezartzen zaien tokia izanen dute.”

Zioak: 37.1 artikuluko berak: Aurreko artikuluan bezala, proposamenaren testua hobetzen du, honakoengatik: a) kendu egiten du “txit garaia” gizalegezko tratamendua nahitaez erabili beharra eta ez du horren ordezkorik ezartzen, eta bete egiten du, horrela, aldaketaren azken helburua. eta b) bidea irekita uzten du, behar izanez gero, beste ohore edo gizalegezko tratamendu batzuk ezartzeko, eta ekiditeko, era horretan, beste agintari batzuekiko jokaera bidegabeak.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarri bakarra: Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 22. artikuluko 4. idatz-zatia kentzea:

1. 15/2004 Foru Legeko 22. artikulua 4. idatz-zatia kendu da.

2. Orain arte 5. idatz-zatia izan dena 4. idatz-zatia izanen da, eta testu bera izaten jarraituko du.”

Zioak: Foru Lege proposamenaren edukiarekin bat, erabat zentzugabea bailitzateke, eta bidegabekeria ulertezina, Nafarroako Gobernuko lehendakariarentzat protokolo-tratamendua kentzea eta, aldi berean, administrazioko zuzendari nagusientzat “txit prestua” tratamenduarekin jarraitzea.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da argitara dezan hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatu eta bultzatze aldera irakasleen prestakuntzari zuzenduta dagoen osasun gaiei buruzko materiala.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita argitara dezan hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatu eta bultzatze aldera irakasleen prestakuntzari zuzenduta dagoen osasun gaiei buruzko materiala

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakasleen prestakuntzari zuzendutako osasun gaiei buruzko materiala argitara dezan, hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatu eta bultzatze aldera.

Zioen azalpena

Hezkuntza Departamentuak eta Osasun Departamentuak hitzarmen bat dute 1994az

geroztik, osasunaren aldeko eskolen Europako sarean sartzen baita, helburu duena eskola esparruan bizimodu osasuntsuak sustatzea. Bizimodu osasuntsuen sustapena 2. lehentasun gisa jasota dago Nafarroako 2006-2012 aldirako osasun planean.

Hitzarmen horren kariatara zenbait jarduketa egin izan dira, hainbat material sortu duen batzorde tekniko baten bitartez.

Mozio honetan aipatzen dugun material hori ia bi urtean zehar taxutu du batzorde tekniko batek, ondoko hauetako profesionalek osatua: Osasun Publikoaren Institutua, Drogamenpeketasunaren Foru Plana, Emakumeari Laguntzeko Zentroak, Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzua, Hezkuntza eta Garapenerako Atala eta Nafarroako eremu eta eredu ezberdinetako ikastetxe publiko nahiz pribatuetako irakasleak.

Une honetan, material hori geldirik dago; prest eta maketaturik dago, baina, Hezkuntza eta Osasun departamentuen arteko desadostasunak direla eta, argitaratzea falta da.

Hortaz, hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatzea helburu, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakasleen prestakuntzari zuzendutako osasun gaiei buruzko materiala argitara dezan, hezkuntzaren arloan bizimodu osasuntsuak sustatu eta bultzatze aldera.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Erriberako eskualdearentzat Foru Komunitateko hiria da administrazio eta merkataritza arloetako erakargunea, baina Zaragozako hiria ere bada haientzat aisiarako nahiz merkataritzako gunea.

N-232 errepidea nafar askok erabiltzen dute, sarri erabili ere, Zaragozara joateko. N-232 errepideko Nafarroako tartea bikoiztuta –edo bikoizketa-lanak hasiak– dagoen honetan, laster hasi behar dira Aragoiko tarteko obrak.

Bikoizketa-lanen ondorioz sortzen diren autoilarak nahiz arrisku eta eragozpenak konpontzeko modu bat dateke ibilgailuak A-68tik ibiltzea.

Aragoiko Erkidegoak eta Sustapen Ministerioak konpromisoa dute hitzarmen-akordio batera heltzeko eta, besteak beste, Mallén eta Figueruelas arteko A-68ko tartea doakoa izan dadin, N-232 errepidearen Aragoiko tartea bikoizteko obrak bukatu bitartean.

Ondorioz, eta arestian esandakoa kontuan izanik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketak has ditzan Aragoiko Gobernuarekin eta Sustapen Ministerioarekin, hitzarmen bat egite aldera, A-68 autobidea doakoa izan dadin, Tutereta eta Zaragoza bitarteko bi norabideetan, N-232 errepidearen Aragoiko zatiaren bikoizketa-lanak amaitu bitartean.

2. Erabaki hau ondokoei jakinaraztea:

- Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioari.
- Aragoiko Gobernuko lehendakariari.
- Aragoiko Gorteetako talde politikoetako ele-dunei.
- N-232 errepidearen bikoizketaren aldeko plataformako batzorde iraunkorreko eledun eta Malléngo alkate Antonio Asini.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzen ditzan Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik etorritako pertsonak hautesle eta hautagai izan ahal izateko udal hauteskundeetan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez gobernu zentrala premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak bultzatzen ditzan Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik etorritako pertsonak hautesle eta hautagai izan ahal izateko udal hauteskundeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Azken hogei urteotan, eta bereziki azken bost urteotan, munduko hainbat tokitatik etorritako milaka pertsona jarri da Espainiako estatuan bizitzen, eurentzat nahiz euren familientzat etorkizuna hemen lantzeko asmoak bultzatuta. Egoera hau ez da iragankorra: badirudi mugimendu hori hurrengo urteotan ere gertatuko dela.

Emakume eta gizon horiek gure gizarteko kide bihurtu dira, euren ekarpena eta ahalegina geurea ekarriz. Haien seme-alabak gure alboan jaio eta haziko dira, eta gureekin joanen dira eskolara. Pertsona horietako zenbait Europar Batasuneko beste herrialde batzuetatik datoz, eta legearen aldetik atzerritarrak badira ere, Batasuneko tratatuei jarraikiz arautzen dira haien egonaldia eta eskubideak, eta ez Atzerritarren Legeari jarraikiz. Batasuneko atzerritarrak dira.

Beste hainbat, Espainiako estatutko gehienak hain zuzen ere, Hirugarren Mundua deitu ohi denetik datoz, batez ere Hego Amerikatik, Magrebetik, Afrika Azpi-sahararretik eta Europako ekialdetik. Hain zuzen ere, planetako toki horietan metatzen dira indarkeria-gatazka asko eta asko, bai eta haustura sozial eta politikoak eta etorkizunik ilunenak ere. Pertsona horien oinarritzko eskubideak Konstituzioak babesten ditu, baina Batasunetik kanpokoak direnez, hemen sartu, bizi eta lan egiteko eskubideak Atzerritarren Legeak arautu eta mugatzen ditu; izan ere, lege horrek zorrotz murrizten ditu administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinen oinarritzko eskubideak.

Guk diogu Nafarroan bizi den pertsona orok duela duintasunez bizitzeko eskubidea. Uste dugu ez dela posible gizarte ongi integratua —hori da Nafarroarentzat nahi duguna—, baldin eta eskubide berberak dituzten herritarrekin batera eskubideak murrizturik dituen pertsona multzo iraunkorra —bere sorlekua dela medio— badago. Egoiliar horiei gure bizitza sozial, kultural eta politikoan bete-betean parte hartzeko eskubidea ukatzeak demokrazia bera pobretzea dakar. Horregatik defenditzen dugu gurean bizitoki egonkorra duten pertsona guztiak tratatu behar ditugula herrikide gisa eta aitortu behar zaiela eskubidea dutela bere botoaren bidez erkidegoaren erabakietan parte hartzeko, dagoeneko haren parte baitira eta erabaki horiek haien etorkizunari eraginen baitiote. Horrek erraztu egingen du, gure ustez, familia horiek gurean integratu eta sustraiak egitea; izan ere, lege arloko hainbat eta hainbat traba gainditu behar izan dituzte eta gure erkidegoan bizitzen jartzearen eta euren egoera erregularizatzearen, haientzat nahiz haien seme-alabentzat bizitza hobea izaten saiatzen ari dira familia horiek.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Gobernu zentrala premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzen, Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik etorritako pertsonak hautesle eta hautagai izan ahal izate aldera udal hauteskundeetan, baldin eta Espainiako estatuan legez bizi izan badira gutxienez ere hiru urtez.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseilua premiatzen da azterketa eta txostena egin dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza lizentziadun titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak ezartzearen egokitasunari buruz.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseilua premiatzen baita azterketa eta txostena egin dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza lizentziadun titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak ezartzearen egokitasunari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroak arazo bat du osasun arloko beharri zaneiei erantzuteko sendagileen gabeziari dagokionez. Gaur egun, gabezia hori errealitate bat da landa eremuko oinarritzko osasun laguntzaren arloan, baina osasun arloko plangintzako adituek diotenez, gabezia hori laster hedatuko da hiriko osasun arloko laguntzaren eremura eta laguntza espezializatura, eta hartara, arazoa orokortuko da.

Osasuna da herritarren beharrian nagusieta bat, eta beraz, sendagileen gabeziaren arazori erantzun behar diote botere publikoek. Osasun arloko langileei laguntza emateko kultura politikoa berria behar da, profesionalak diren aldetik dituzten premia ezinbestekoei erantzuna emanen

diena, Nafarroan ongizatearen estatua finkatze aldera.

Sendagileen gabeziaren arrazoietakoa bat da Nafarroan goi mailako ikastetxe bat dagoela soilik, pribatua, sendagileak prestatzeko, Nafarroako Unibertsitatea hain zuzen ere, eta medikuntzako titulua lortu nahi duten ikasle nafarren asmoak zapuztu egiten ditu plazen gabeziak, eta beste titulazio batzuetara jo behar izaten dute Foru Komunitatetik irten beharrik ez izateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak dioenez, “unibertsitate-erakundeak funtsezko zeregina du gizartearen garapenean... goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa haren eskuetan uzten baita. Unibertsitatea, hortaz, ez da erkidegoaren interesekin zerikusirik ez duen entitate bat; aitzitik, unibertsitatearen eginkizuna unibertsala da, eta, aldi berean, haren jarduna txertaturik dagoen gizartearen beharri zaneiei egokitu beharra du, eta horien arteko oreka lortzean ematen du bere benetako neurria. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, lehenik eta behin, Foru Komunitateari zerbitzu emateko tresna gisa sortu zen, foru erkidegoaren aurrerabide kultural, zientifiko eta teknikoari laguntzeko asmoz, bai irakaskuntzaren bidez bai ikerketa lanaren bidez”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren estatutu indardunek –klostroak 2003ko martxoaren 7an eta Nafarroako Gobernuak 2003ko maiatzaren 12an onetsitakoak– 2. artikuluan ezartzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eginkizuna dela “profesional kualifikatuak prestatzea teknika- ren, zientziaren eta giza zientzien eremuetan”. Estatutuen 6. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera, berriz, “fakultateak, goi mailako eskola teknikoak edo politeknikoak, unibertsitate-eskolak edo unibertsitate-eskola politeknikoak dira ikasketak antolatzeko ardura duten zentroak. Espainia osoan balio duten unibertsitateko titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketak, administrazio- eta kudeaketa-prozesuetan ere lagunduko dute”. Artikulu horren 2. idatz-zatian ezartzen denez, “Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak ares- tiko idatz-zatian aipatzen diren zentroak sortu, aldatu edo desagerrarazteko espedienteak abia-

raztea eskatu ahalko du, bai eta Espainia osoan balio duten unibertsitateko titulu ofizialak lortzera bideratutako unibertsitate ikasketak ezarri, aldatu eta kentzekoak ere." 3. idatz-zatian, berriz, ondokoa ezartzen da: "Arestiko idatz-zatian aurreikusitako edozein aukera dela-eta Gizarte Kontseiluak edo Foru Komunitateak egiten duten proposamen edo ekimenei buruz informatuko du Gobernu Kontseiluak".

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseilua premiatzen du azterketa eta txostena egin dezan Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza lizentziadun titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak ezartzearen egokitasunari buruz, eta horretarako beharrezkoak diren ikasketa-, administrazio- eta kudeaketa prozesuak ezar ditzan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 18an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, NUPekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen diren titulu-azterketa sakona egin dezan, ikasketa berrien ezarpena hobetze aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, NUPekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen diren titulu-azterketa sakona egin dezan, ikasketa berrien ezarpena hobetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, NUPekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen diren titulu-azterketa sakona egin dezan, ikasketa berriak ezartzearen aukera balioeste aldera.

Zioen azalpena

Europako goi mailako hezkuntza-gunea garrantzi handiko hezkuntza-erronka da unibertsitateko irakaskuntzari begira. Unibertsitateek funtsezko erreferentzia izan behar dute ezagutzaren aurrerabidean eta gure gizartearen gizarte- eta ekonomia-garapenean, eta ikasten jarraitu nahi duten pertsona guztiei beren bizitza osoan prestakuntza ematen lagundu behar dute, pertsona horien adina zein ere den.

Unibertsitate-ikasketak beste modu batera antolatu direnez graduako, masterreko eta dokortzako zikloak ezartzearen ondorioz, une hau egokia da hausnarketa egiteko gure erkidegoaren hezkuntza-, kultura-, gizarte-, teknologia- eta ekonomia-garapenerako interesgarri izan daitezkeen titulazioei buruz, argi izanda betiere epe ertain eta luzean jarri behar dugula gure ikusmuga.

Gizarte-dinamiken eta gure gizartearen eraldaketaren ondorioz, jarduketaren eremu berriak sortu dira, eta hezkuntza-erakundeek horiei ekin behar diete, errealitate sozialarekiko elkarreragin egokia bermatuko dien prestakuntza akademiko eta pertsonala izan dezaten herritarrek. Horra gizartearen orainean eta etorkizunean garrantzi handia izanen duten arloen lagin txiki bat: arlo soziosanitarioa, osasuna, menpekotasun prozesuen artatzea, populazioaren zahartzea eta biziraupen handiagoa, sare-gizartea, pertsonen mugikortasuna, nazioarteko lankidetzak.

Ekimen honen helburua da Nafarroako Unibertsitate Publikoan goi mailako irakaskuntza erabat egokitzea gure gizartearen dinamikei eta erantzutea jakintzaren arlo ezberdinetako prestakuntza-beharrizanei.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, NUPekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskaintzen diren tituluen azterketa sakona egin dezan, ikasketa berriak ezartzearen aukera balioeste aldera, gure gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrizaneekin bat.

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik bideratzen diren 600.000 euro Nafarroako Aldizkari Ofizialeko itzulpen lanak kanpoan kontratatzeko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik bideratzen diren 600.000 euro Nafarroako Aldizkari Ofizialeko itzulpen lanak kanpoan kontratatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta bideratuko dira 600.000 euro Nafarroako Aldizkari Ofizialaren itzulpen lanak kanpoan kontratatzeraz?

Iruñean, 2008ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkarietza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkarietza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik, zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan dute partaidetza edo ordezkari-tza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak?

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat egin behar duen batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak

Zure departamentuan Europar Batasunaren zerbitzuen gaineko zuzentarauaren eraginari buruzko azterlan bat eginen duen batzorde bat sortu dela jakin dugunez, eta kontuan hartuta batzorde horren lanetik heldu diren emaitzak muntakoak eta garrantzitsuak izanen direla, ondokoa jakin nahi dugu:

Galderaren testua

1. Noiz eratu da aipatu batzordea? Zenbat biler eta zein egunetan egin ditu gaur arte?

2. Nork osatzen du batzordea? Zehaztu ondokoak: izenak eta karguak; haiek izendatzeko modua; lanaldia; ordainsariak, baldin eta halakorik badago, haren jarduna erregulatzen duten arauak edo funtzionatzeko sistema eta esleitu zaion lekua edo egoitza.

3. Batzorde horrek ba al du jarduketa planik? Baldin badu, zer epe du jarduteko eta zer arlo jorratuko dira edo jorratzen ari da? Planik ez baldin badu, zer azterlan edo/eta azterketa egiteko agindu zaio? Nork edo nola eman dio agindua?

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galderaren testua

1. Zenbat liburu argitaratu dira “Pro Libertate” izeneko bilduman?

2. Zer titulu argitaratu dira? Horietako zenbat ale jarri dira salgai eta zenbat erosi edo finantzatu ditu Nafarroako Gobernuak, bai zuzenean bai NAPIren nahiz administrazioak diruz lagundutako edo hark parte-hartzearen gehiengoa duen entitate edo erakundeen bidez?

3. Zenbat egilek eta zuzendarik parte hartu dute bildumako liburu bakoitzean? Adierazi horien izenak, karguak edo lanbideak.

4. Zer kostu izan du argitalpen bakoitzak foru administrazioarentzat, erakundeentzat edo haren menpeko enteentzat? Zehaztu eta bereizi egileei edo/eta zuzendariei emandako edozein motatako ordainsariak eta gainontzeko kostuak.

5. Zenbateko dirusarrerak eragin ditu, guztira, halakorik egon baldin bada, titulu edo bolumen bakoitzak? Zehaztu sortutako dirusarreraren jatorria, baldin eta halakorik egon bada.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruzkoa. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bat betetze aldera Nafarroako Gobernuak eginiko izapideei buruzkoa. Erabaki haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen beharrezkoa den prozedura abiaraz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko.

raz zezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak azaroaren 9ean eginitako Osoko Bilkuran erabaki hau hartu zuen:

“1. Gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuari eskatzea beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan, Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea mahai bat osa dezan, Ezkaba mendiko eta Alfontso XII.a

gotorlekuko inguruarentzat izan daitezkeen aukerak aztertzeko. Mahai horrek gizartearen eta ingurumenaren arloko eragileez eta udalez osatua egon beharko luke, eta kontuan hartu beharko lirarteke, halaber, Nafarroan gerra zibileko oroimen historikoa gordetzearen alde eta, zehazki, eremu horren oroimen tragikoa gordetzearen alde lan egiten duten elkarteak.

Erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2007ko azaroaren 15ean.

Horri buruz, haxe esan behar dugu:

Zer izapide egin dira orain arte onetsitako erabaki horri dagokionez?

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an.

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainekoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektoreari buruzko plan estrategikoaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Zioak

2005eko ekainean aurkeztu zen jendaurrean IKT 200/2007 sektorearen plan estrategikoa. Berrikuntza teknologikorako funtsezko sektore bat denez gero, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak edo, kasua bada, dagokionak, ondo-ko galderak idatziz erantzun ditzan nahi dugu.

Galderaren testua

1. Egin al da informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen plan estrategikoaren ebaluazioa edo/eta likidazioa? Egin baldin bada, eman bitez horri buruzko informazioa eta frogagiriak, eta, betiere, eman bedi, gutxienez ere, horren betetze ekonomikoaren txostena.

2. Osatu al da IKT sektorearen plan estrategikoan aurreikusitako cluster-a? Osatu baldin bada, esan noiz, non eta nork osatzen duen, eta adierazi egindako jarduketak; osatu ez baldin bada, adierazi zerk eragotzi duen aipatu cluster-a osatzea.

3. Eratu al da profesionalizazio planean aurreikusitako behatokia? Eratu baldin bada, adierazi noiz eta nork osatzen duen, funtzionamendua eta egindako jarduketak, eta ez baldin bada eratu, adierazi zer dela-eta ez den eratu edo ez duen funtzionatzen.

4. Zer jarduketa egin edo/eta finantzatu dira planaren kargura bikaintasunaren alorrean?

5. Teknologia nola transferitu da, baldin eta transferitu bada, sektorerara?

6. Zer jarduketa egin dira enpresetan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera

sustatzeko? Zer komunikazio-jarduketa egin dira IKT sektorearen plan estrategiko horretan?

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, haur eta gazteentzako buru-osasuneko zerbitzuko aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Kutz andreak, Osasun Batzordean irailean eginitako agerraldian, Foru Komunitatean haur eta gazteei adimen-osasunaren alorrean ematen zaien laguntzaren erreforma iragarri zuen. Espainian laguntzaren alorrean eredu aitzindaria dela adierazi zuen kontseilariak lan bilera hartan, eta horren kariatara haur eta gazteentzako adimen-osasuneko zentro berriazko bat sortuko dela.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak hau erantzutea nahi dugu:

Zertan da haur eta gazteei adimen-osasunaren alorrean ematen zaien laguntzaren erreforma?

Zer asmo du une honetan Osasun Departamentuak haur eta gazteentzako adimen-osasuneko zentro berriazkoari dagokionez?

Zer epe du departamentuak adimen-osasunaren alorreko bi proposamen horiek gauzatzeko?

Iruñean, 2008ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, ikerketa planari eta ikerketa-proiektu eta proiektu teknologiko berriak garatzeko Nafarroako beste enpresa publiko edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eratu bezain laster Osasun kontseilari Kutz andreak eginiko agerraldian azaldu zituen zertan oinarrituko den legegintzaldi honetan osasun arloko politika Nafarroan.

Berrikuntza, ikerketa eta teknologiari dagokien kontseilariak adierazi zuen bultzada eman behar zaiola osasun arloko ikerketa eta berrikuntzari: ikerketa plan berria hain zuzen ere, haren esanetan hurrengo asteotan aurkeztuko baita.

Legegintzaldi honetarako lan ildoak aurkeztean ondokoa esan zuen: Nafarroako enpresa publikoekiko eta beste erakunde batzuekiko lankidetzara jorratuko dugu.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak hau erantzutea nahi dugu:

Zer informazio eman dezake Gobernuak une honetan ikerketa plan berriari buruz?

Nafarroako enpresa publiko eta erakundeekin harremanak izan dira ikerketa eta teknologiako proiektu berriak gauzatzeko. Zertan da lankidetzara hori?

Ba al dago asmorik neuroendekapenezko gaitasunak aztertzeke?

Zehaztasun osoz jaso nahi dugu egindako galderei buruzko informazio guztia.

Iruñean, 2008ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla-eta aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Vinsak Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek eraikuntza-akats larriak direla-eta aurkeztutako erreklamazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Etxebizitza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Vinsa sozietate publikoak sustatuta Sarrigurenen eraikitako 73 etxebizitzaren jabeek kexa ugari aurkeztu dituzte eraikuntza-akats larriak dituztelako etxebizitza horiek –etxebizitzak 2006ko uztailan eman zitzaizkien jabeei–. Azkena izan da espalo bat itxi dela Garajonai kalean, horma batek erortzeko arriskua duelako.

Etxebizitza Departamentuak etxebizitza horiek sustatu dituen Vinsa sozietate publikoaren arduraduez, ondokoa jakin nahi dugu:

Departamentuak ba al du erreklamazio horien berri?

Onartu al da erreklamazio horietakoren bat?

Zer neurri hartu ditu Etxebizitza Departamentuak –berak du Vinsa sozietate publikoaren ardurara– etxebizitza horietan gertatzen ari diren bizigarritasun-arazo larriak konpontze aldera?

Zer neurri hartu ditu Etxebizitza Departamentuak –berak du Vinsa sozietate publikoaren ardurara– sustapen horren etxegilearen aurka, kasuko kalte-ordainak eskatze aldera?

Iruñean, 2008ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	